

Ez pass de liberté / Nora goaz? Kolektiboa 2021eko irailean sortu zen, Covid-19 kontrako txertoa errefusatzeko lanetik baztertuak izan diren artatzaileen sustenguz. Lanetik baztertuak berriz integratzeko eta txertoaren obligazioa ezeztatzeko berriki egin diren prozeduren berri eman nahi dugu Ipar Euskal Herri mailan, jendea jakinean izateko.

Oroitarazteko, Parlamentuak 2021eko agorrilaren 5eko legea baliogabetu du. Senatua ez bada arduratzen, legea ezin da ezeztatua izan, beraz beti indarrean da. Iduri du Biltzar Nazionalako erabaki horrek kargutik kendu sendatzaileei arrazoin eman diela, berriz lanera joateko ahala emanaz. Paraleloki, Gobernuak berriz lanera itzultzea ahalbidetzen dien dekretua baieztatu du maiatzaren 14an.

Galdera frango bada bukaera argi-itzalezko horri lotua, hauetan sindikatuen sustengu eskasari buruzko galderak. Gure kolektiboa, lanetik baztertuen lan eskubidearen oinarritzko sustenguan izan den « lacheté »az harriturik, bi aldiz joan da tokiko sindikatuengana. Oroitaraz dezagun baztertuak ez dutela ukan ez hilabete saririk, ez RSA laguntzarik (eskualdeen arabera), ez formakuntzarako eskubiderik, ez langabeziako laguntzarik; eta zenbateraino eraginen du haien erretretara joatea?

Gai guzi horietan, sindikatuen isiltasuna harrigarria izan da, harrigarria eta ezin onartua. Gure gutunetan, abisatu genituen haiengandik erantzunik ez bagenu, gure ikuspuntua prentsari komunikatuko geniola, baztertuen egoerari buruz, baita sindikaten gu errezibitzeko errefusari buruz ere.

Lanetik baztertuak aktualitatean zuten posizioaz gain, beharrezkoa iduritzen zaigu eskubidezko estatu bateko eta demokrazia bateko printzipio eta eskubideen higadura bat agertzen duten zenbait gai azpimarratzea. Adibidez, europar arautzeak oroitarazi du, 2022ko urtarriletik, debekatua dela txerto bat obligatzea fase esperimenterik batzuetan, izan txerto baten kasuan ala erremedio baten kasuan. Europar estatu guzietan errespetatu behar duten kuadroa da hau, ondorioz Covid kontrako txertoak ere ez ziren kuadro juridiko horretatik kanpo izaten ahal, edozein izan jendeen kategoria sozioprofesionala (ikus 536/2014 europar araua). Alta, Pfizer injekzioa fase esperimenterik zen 2023ko maiatza arte.

Oroitaraz dezagun ere Oviedoko hitzarmena bezalako itun internazionalak ere norabide berera joaten direla. Zergatik prentsak eta hedabideek ez dute salatzen hain harrigarria dena? Frantziak europar eta nazioarteko itunak urratu ditu gai honetan! Eta sindikatuak, beren uzkurtsunaren eta beren mututasunaren bidez, horren konplize izan dira.

Zenbait esperantza izpi badira hala ere. Egia da lerratze orokor honetan izan direla salbuespen batzu. 2023ko maiatzaren 3an, Nancy-kolan auzitegiak manatu du Ehpadean ari den langile bat berehala berriz lanetik hartua izateko eta berantean ziren hilabete sariak hari ordaintzeko. Hona ekartzen ditugu lan auzitegiak zerrendatu bost argumentuak:

- sekretu medikala urratua izatea (osagarri publikoko kodearen L.1110-4)
- osagarri publikoko kodearen 1111-4 artikulua urratua izatea (tratamendu baten onarpen libre eta argituaren errespetu eza)
- giza eskubideen konbentzioaren 8 artikulua errespetu eza (bizi pribatua urratua izatea)
- Ebren 14/6/2021eko arautegiaren errespetu eza (txertatu eta ez txertatuen arteko diskriminazioa debekatzen duena).
- Azkenik, Oviedoko konbenioaren 5 eta 10 artikuluen errespetu eza (bizi pribatua urratua izatea)

Berrikiago Marmandeko lan auzitegia norabide berera joan da hiru kargutik kendu artatzaileen kasuan.

## **Sekulan ez gehiago!**

Urgentzia egoerak ez du dena justifikatzen ahal, ez ditu oinarrizko eskubideak baliogabetzen ahal. Gure kolektiboa existitzen denetik, azken hiru urteetako lerratze larriak salatzeko beti erreferentzia gisa hartu ditugu frantses, europar eta nazioarteko eskubideak. Zentzu horretan genuke nahi hedabideek gure mezua segiaraztea, jendeak beharrezkoak diren informazio hauek jakin ditzan.